


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 jaitsi ziren 2007ko azaroan

Azken hamabi hilabeteetan (2007ko azaroa, 2006ko azaroarekin alderatuta), eraikuntzaren kostuak %3,6 gehitu ziren.

2007ko azaroan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta azarorako urte arteko tasa %3,6ra iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Eraikuntzaren azpi-sektorea %0,3 jaitsi zen eta Obra Zibilarena %0,2 azaroan; urte arteko tasa %3,4 izan zen Eraikuntzan eta %4,4 Obra Zibilean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera azaroko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2007ko azaroan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,3 jaitsi dira.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpi-sektoreek bilakaera ezberdina izan zuten: aurreko hilaren aldean %0,4 jaitsi zen Eraikuntzako lehengaien kostua eta %0,4 igo Obra Zibilekoa. Azken honen pisu erlatiboa txikiagoa da Eraikuntzarena baino. Azpi-sektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, joera ezberdinak izan zituztela ikusiko dugu: Eraikuntzako lehengaien kostuak %3,3 hazi dira, eta Obra zibilekoak, %4,9.

Azaroan prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiek izan zituzten: *petroliotik eratorritakoak* (%8,4), *asfalto-produktuak* (%6,0), *karea, igeltsua eta eskaiola* (%3,0) eta *beira* (%1,5) lehengaiek. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten, *besteak beste, burdina eta*

altzairua (%-3,8), erauzketa agregakinak (%-0,4), metalezko hoditeria (%-0,4) eta egiturak eta galdaragintza (%-0,3) lehengaiak.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Petroliotik eratorritakoak (%25,8), beira (%19,0), asfalto produktuak (%14,6), metalezko hoditeria (%9,9) eta karea, igeltsua eta eskaiola (%8,5). Bestalde, urte batetik bestera (2006ko azarotik 2007ko azarora) honako hauen lehengaien prezioak murriztu ego gutxiago igo dira: energia elektrikoa (%-2,1), egiturak eta galdaragintza (%-1,5), burdina eta altzairua (%-1,0), eta zeramika produktuak (%0,0).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko azaroa.

GOIBURUAK	INDIZEA 2000 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	130,6	-0,2	3,6	3,1
ERAIKINAK	130,4	-0,3	3,4	2,8
OBRA ZIBILA	131,3	0,2	4,4	4,0
LEHENGAIEN KOSTUA	127,6	-0,3	3,6	2,9
ERAIKINAK	127,6	-0,4	3,3	2,6
OBRA ZIBILA	127,9	0,4	4,9	4,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	137,4	0,0	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp